

SARRERA

2004ean dendetako kartoiaren gaikako bilketa bultzatzeko kanpaina burutu zen. Une honetan, kontutan hartuz denda batzuk itxi egin direla, beste batzuk ireki, jabea aldatu edota denboraren poderioz emandako informazioa eta ohiturak kartoiaren gaikako bilketari buruz hobetu behar direla, Urola Erdiko Mankomunitateak Ingurumen hezkuntza kanpaina berri bat jarri nahi du abian. Kanpaina berri honen helburua dendetako kartoiaren gaikako bilketa indartzea, bilketa modu egokian egitea hau da, eguna eta ordutegia betez eta kartoiak behar bezala uzteko ohiturak finkatuz eta eskaintzen den zerbitzua beharretara egokitzea da, zerbitzua optimizatuz.

Proposatzen dugun kanpaina berri honek ere harreman zuzena hartzen du oinarri modura eta komunikazio eraginkorra lortzea du helburu nagusia. Dendariei informazio zuzena eta zehatza emango zaie kartoi bilketa behar bezala egiteko eta parte hartzea bultzatzeko, eta bestetik, beraiengandik informazioa jaso nahi da gaur egun atez ateko zerbitzuan duten parte hartze mailari buruz, sortzen duten kartoi kopurura... zerbitzuaren eraginkortasuna handitzeko asmoz.

Urola Erdiko Mankomunitateak dendetako kartoi bilketa zerbitzua Zestoara zabaltzeko asmoarekin kanpaina herri honetan ere egitea proposatu du.

INGURUMEN HEZKUNTZA KANPAINAREN ILDO NAGUSIAK

- ❑ Hartzaileak Azkoitiko 179 denda/taberna-jatetxe eta Zestoako 58ak izango dira.
- ❑ Ingurumen hezitzaile aditu batek 237 establezimendu horiek bisitatuko ditu eta bakoitzaren arduradunarekin hitz egingo du, zeregin nagusi hauek lortzeko: kanpainari eta gaiari buruzko informazioa eman, galdetegi bat bete, dendariaren kezka eta iritziak jaso.
- ❑ Bisita horretan, hezitzaileak informazio euskarri bat emango dio dendariari: pegatina bat, non zerbitzuarekin lotutako mezu nagusiak barneratuak egongo diren.
- ❑ Bisitetan jasotako informazio guztia, datu base batean sartuko da, ondoren aztertu eta ondorioak ateratzeko.

BISITA PERTSONALIZATUAK

Ingurumen hezitzaile aditu bat arduratuko da zeregin horretaz. Establezimendu guztietara joango da eta arduradunarekin elkarrizketa bat mantenduko du. Urola Erdiko Mankomunitatearen izenean aurkeztuko da eta akreditazio-txartela erakutsiko du guztietan. Establezimendua itxita egonez gero edota bertan dagoen pertsonak une horretan ezingo balu atenditu, berriz itzuliko da, hiru bisita egin arte. Komunikazio eraginkorra lortu nahi da eta horretarako hezitzaileak informazio zehatz eta laburra emango dio.

Kanpainaren eduki nagusiak jasotzen dituen itsasgarri bat emango zaio dendariari. Bere helburua oinarrizko informazioa idatziz ematea eta arduradunari, berak lankideei azaldutakoak zalantzak argitzeko eta aldi berean kanpainaren oroigarri izatea da, kanpainaren eraginkortasuna handitzeko. Baita ere, itsasgarri izatean, bezeroek establezimendu hori birziklatzearen alde dagoenaren adierazgarri izango litzateke.

Era berean, galdetegi bat beteko du hezitzaileak, dendako arduradunari galdetuz. Inkesta Mankomunitateko arduradunekin definituko da eta atal nagusiak ondorengoan izango dira: sortzen duen kartoikantitatea eta neurriak, gaikako bilketa parte hartzen duten, nola, ez badute parte hartzen zergatik...

Bisitetan jasotako informazio guztia datu base batean sartuko da. Horrela, galdera bakoitzarentzat erantzunen portzentaiak eta zerrendak aterako dira.

